



# ERRENIEGA IKASTETXEKO KONTINGENTZIA PLANA

2020-2021 IKASTURTEA

# AURKIBIDEA

1. Sarrera
2. Sektore blokeagarriak eta bizikidetzatalde egonkorak
3. COVID-19ren osasun-krisiaren aurrean aurreikusitako egoerak
  - 3.1. 1. egoera: "Normaltasun berria"
  - 3.2. 2. egoera: sektoreen blokeo indartua
  - 3.3. 3. egoera: sektoreak erabat blokeatuta
  - 3.4. 4. egoera: aurrez aurreko eskola-jarduera bertan behera uztea eta ikastetxea ixtea
4. Ikastetxeko arduraduna COVID-19ren aurrean
5. Segurtasun eta higiene-neurriak
  - 5.1. Eskuak garbitzea
  - 5.2. Musukoak
  - 5.3. Gel hidroalkoholikoa
  - 5.4. Ikastetxeko garbiketa
  - 5.5. Ateak, leihoak eta eskailerak
  - 5.6. Espazioak aireztatzea
6. Protokoloa alegiazko COVID-19 kasu baten aurrean
  - 6.1. Ikasleentzako protokoloa
  - 6.2. Irakasle edo zerbitzu eta administraziozako langileentzako protokoloa

**7. COVID-19ren aurrean kalteberak diren irakasleak eta ikasleak**

**8. Antolamendu-neurri orokorrak**

**8.1. Ikasleen sarrerak eta irteerak**

**8.2. Ikasleen joan-etorriak eraikinaren barrualdetik**

**8.3. Ikasgelen erabilera**

**8.4. Gorputz heziketa**

**8.5. Zaintzak**

**8.6. Jolasaldiaren kudeaketa eta jolastokien erabilera**

**8.7. Komunen erabilera**

**8.8. Irakasleei eta AZLei buruzko neurriak**

**8.9. Familiei eta ikastetxez kanpo pertsoneri buruzko neurriak**

**9. Zerbitzu osagarrien antolaketarako neurriak**

**9.1. Goiz goizeko sarrera**

**9.2. Eskola-jantokia**

**9.3. Eskolaz kanpoko jarduerak**

**9.4. Garraioa**

**10. Antolakuntza neurri akademikoak**

**10.1. Gaitasun digitala indartzeko plana**

**10.2. Programazio didaktikoak**

**10.3. Ikasle eta irakasleentzako hornidura teknologikoa**

**10.4. Tutoretza arreta-plana, aurrez aurreko eskola-jarduera bertan behera utziz gero**

**10.5. Aurrez aurreko eskola-jarduera bertan behera utziz gero arreta akademikoa emateko plana**

**11. Plan hau betetzea**

## 12. Plan hau eguneratzea

### 1. Sarrera

*Erreniegako Kontingentzia Plan* hau Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak emandako jarraibide espezifikoei jarraituz egin da, eta 2020-2021 ikasturterako aurrez aurreko hezkuntza-jarduera garatzeko Prebentzio eta Antolaketa Protokoloa osatzen du.

Helburuak:

1. Prest egotea COVID-19ren osasun-krisiak ikastetxeari 2020/2021 ikasturtean planteatzen diren diezazkiokeen egoerak baino lehen.
2. Ikasleen, irakasleen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen higiene-, garbitasun- eta segurtasun-baldintzak bermatzea eskola-orduetan eta eskolaz kanpoko orduetan.
3. Familiei behar bezala informatzea aldi horretan jarduera akademiko presentziala eta ez-presentzialaren inguruan planifikatutako garapenari buruz.

Dokumentu honetan jasotako antolaketa-neurri asko gogorak edo harrigarriak izango dira ikasleentzat, batez ere adin txikiko ikasleentzat. Garai bereziak bizitzea tokatzen zaigu, sormenezko konponbideak dakartzatenak. Badakigu hori eskolako harreman-bizitza pobretzea dela, eta espazioak sektorizatzeak dinamika itxiegiak sor ditzakeela, baina uste dugu behin-behineko neurriak direla, pertsonak babesteko pentsatu behar direnak, eskolan bizitza ahalik eta lasterren berreskuratu ahal izateko itxaropenarekin.

Familiei biziki eskatzen diegu etxetik lagundu dezazuela neurriak azaltzen eta helarazten, betiere ikuspegi positibotik eta guztion artean zaintzeko asmoz. Ezinbestekoa da ereduarekin eta beharrezko lasaitasunarekin irakastea, haurren beharrei eta bizipenei erantzutea eta lotura seguruak ezartzeko arreta berezia jartzea. Lasaitasuna eta segurtasuna transmititzea. Eskolagune sozial, emozional, sanitario eta fisiko babestuarekiko konfiantza izatea.

Orain inoiz baino gehiago eskatzen zaigu eguneroko bizitzako errutinak ezartzea, hala nola higiene pertsonaleko eta ingurunekeko errutinak. Zaintza pertsonaleko eta kolektiboko taldearen bizitzan errutinak sartzeko aprobetxatuko dugu, eta, horregatik, ongizate, segurtasun eta higieneko erritualak eta errutinak barne hartu beharko dira, norberaren, besteen eta ingurunearen zaintzaren hezkuntza-esperientzia gisa.

Kompetentzia emozionala lantzea oso garrantzitsua izango da ikasturte hasieratik. Ikasleei bizi dugun eta biziko dugun egoera honen iragana, oraina eta etorkizuna integratzen laguntzea. Beraz, inoiz baino garrantzitsuago iruditzen zaigu arlo emozionala zaintzea eta komunikazioa begietara begiratzuz egitea. Geletan, ikasturtearen hasieran, aukerak sortuko dira sentitutakoa, bizitakoa eta hautemandakoa ikasleekin lantzeko.

## 2. Sektore blokeagarriak eta bizikidetza-talde egonkorak.

Hezkuntza Departamentuak bi kontzeptu ezarri ditu aurrez aurreko eskola-jardueretan giza taldeak antolatzeko: *sektore blokeagarriak* eta *bizikidetza-talde egonkorak*.

*Sektore blokeagarriak* ikasle- eta irakasle-taldeak dira, eta horiei espazio batzuk egokitzen zaizkie. Sektore horiek partzialki edo erabat itxi daitezke osasun-krisiaren arabera, eta horrek isolatu egiten ditu une jakin batean gainerako sektoreetatik. Sistema honen helburua da gerta litekeen kutsadura-foku bakar batek ikastetxe osoko aurrez aurreko eskola-jarduera ez etetea.

Sektore horiek honela antolatzen dira bi hezkuntza-etapetan:

### A. HAUR HEZKUNTZA

- 1. Sektorea: 3, 4 eta 5 urteko pasabidea

### B. LEHEN HEZKUNTZA

- 2. sektorea: 1., 2. eta 3. mailako pasabidea
- 3. sektorea: 4., 5. eta 6. mailako pasabidea

Sektore bakoitzaren barruan sartzen dira hezkuntza-maila horietako ikasle guztiak eta talde horietan eskolak ematen dituzten irakasleak (tutoreak eta espezialistak). Sektore bereko pertsonen arteko interakzioa dagoenean, Plan honetan aurreikusitako urruntze- eta higiene-neurriak mantendu beharko dira. Gainera, Hezkuntza Departamentuak ikastetxeei manparak ematea aurreikusi du, hautazko bat partekatzen duten ikasleak bereizteko (Erlijioa).

*Bizikidetza-talde egonkorak* ikasleez eta irakasleez osatuta daude, eta modu estuan biziko dira espazio desberdinetan, eta eskola-aldiaren zati handi bat elkarrekin igarotzen dute, talde eta tutore bakoitzaren kasuan bezala. Horrela, bizikidetza-talde egonkorak honako taula honetako hogeitabatak izango dira:

HAUR HEZKUNTZA			LEHEN HEZKUNTZA	
HH 1.maila A	HH 1.maila B	HH 1.maila C	LH 1.maila A	LH 1.maila B

HH 2.maila A	HH 2.maila B	HH 2.maila C	LH 2.maila A	LH 2.maila B
HH 3.maila A	HH 3.maila B	HH 3.maila C	LH 3.maila A	LH 3.maila B
			LH 4.maila A	LH 4.maila B
			LH 5.maila A	LH 5.maila B
			LH 6.maila A	LH 6.maila B

Bizikidetza-talde egonkorren barruan, elkarrekintza oztopo fisikorik gabe izanen da, eta Erreniegako irakaskuntza-ikaskuntza prozesurako funtsezko ardatz diren metodologiekin ahal den neurrian jarraituko da.

### 3. COVID-19ren osasun-krisiaren aurrean aurreikusitako egoerak

#### 3.1. 1. egoera: “Normaltasun berria”

Hauek dira haren ezaugarriak eta antolaketa-neurriak:

- Eskolara joaten diren ikasleak: haur guztiak.
- Ordutegia: ohiko ordutegia.
- Ratioak: aurreko ikasturteko ratio bera.
- Irakasgaiak ematea: guztiak normaltasunez, aurreikusitako segurtasun- eta higie-neurriak betez.
- Sektoreak ez daude blokeatuta, kutsatze-foku bat agertu ezean.
- Gelak: guztiak erabili ahal izango dira isolamendurako zehaztutako gelak izan ezik. Komunak diren ikasgelara iristean, ikasleek eta irakasleek nahitaez garbitu beharko dituzte mahaiak, aulkiak eta gainerako material didaktikoak (ordenagailuak, monitore interaktiboak eta abar).
- Ahal den neurrian, ikasleen artean materialak partekatzea saihestuko da. Beraien ikasgela ez den beste batera joaten direnean, ezinbestekoa den materiala ikasle bakoitzak eramango du (arkatza, borragoma...)
- Ikasleek ez dute inolako objekturik edo jostailurik ekarriko etxetik.
- Eskolako materiala etxera eramango da beharrezkoa den kasuetan soilik.
- Sarrera eta irteeren eta jolas-denboraren kudeaketa: *Planaren 8. atalean azalduta.*
- Eskolaz kanpoko aktibitate osagarriak (ateraldiak): irakasleen taldeak baloratuko du hauek egitearen bidegarritasuna.
- Zerbitzu osagarriak (*dokumentu honen 9. puntuan azaldutako baldintzen arabera*):
  - Goiz goizeko sarrera: aktiboa.
  - Eskola-jantokia: aktiboa.
  - Garraioa: aktiboa.
  - Eskolaz kanpoko jarduerak: bertan behera.

### 3.2. 2. egoera: sektoreen blokeo indartua

Irailaren 1etik aurrera, egoera honetan lanean hasiko gara.

Egoera horretan, sektoreen iragazkortasuna murrizten da eta batzuen eta besteen isolamendua indartzen da, baldintza hauen arabera:

- Eskolara joaten diren ikasleak: haur guztiak, osasun-agintariak berrogeialdian jarri badute sektore bat salbu.
- Ordutegia irailean: ohiko ordutegia.
- Ordutegia urritik aurrera: jardunaldi jarraituan, egunero 45 minutuko sei saio eginez, goizeko 09:00etatik arratsaldeko 14:00ak arte. **Atsedenaldirako 30 minutuko tarte bakarra izango da, bat Lehen Hezkuntzarako eta bestea Haur Hezkuntzarako.**
- Ratioak: aurreko ikasturteko ratio bera Haur Hezkuntzan izan ezik, 20ra pasatu dela.
- Taldeen eta irakasleen ordutegiak: egokituko dira ordutegi trinkora.
- Irakasgaiak ematea: denak normaltasunez.
  - Inglesa eta Musika: gela erabiltzea debekatuta dago, beraz irakasle espezialista joanen da taldearen ikasgelara.
  - Erljioa: gela espezifikoa erabiliko da talde desberdinetako ikasleak manparez bananduta.
- Sektoreak partzialki blokeatuta daude, eta talde bateko gelan sartzen diren irakasleak ahalik eta gehien murrizten dira.
- Bizikidetzat talde egonkorretan ikasleen artean eskola-material partekatua erabilera mugatuko da.
- Sarrera eta irteeren eta jolas-denboraren kudeaketa: *Planaren 8. atalean azalduta.*
- Eskolaz kanpoko jarduerak osagarriak (ateraldiak): irakasleen taldeak baloratuko du hauek egitearen bidegarritasuna.
- Zerbitzu osagarriak (*dokumentu honen 9. puntuan azaldutako baldintzen arabera*):
  - Goiz goizeko sarrera: aktiboa.
  - Eskolako jangela: aktiboa.
  - Garraioa: aktiboa.
  - Eguerdiko jarduerak: bertan behera.

### 3.3. 3. egoera: sektoreak erabat blokeatuta

Egoera horretara igaroko da berriro, osasun- eta hezkuntza-agintariak hala erabakitzen dutenean. Egoera horretan, sektore-blokeoa erabatekoa da eta eskola antolaketa berri bat suposatuko duenez, eskola bolada batez itxita egongo da. Egoera honetako baldintzak hauek dira:

- Eskolara joaten diren ikasleak: haur eta Lehen Hezkuntzako haur guztiak, osasun-agintariak sektore bat berrogeialdian jarri dutenean izan ezik.
- Ordutegia: 2.egoerakoa.
- Ratioak: Hezkuntza Sailak zehaztuko ditu, Osasunbidearen argibideen kontura. Taldeak banatuz gero, ikastetxeko ikasgela desberdinetan birkokatuko dira, eta tutore berri bat esleituko da irakastordurik gabe geratu diren espezialisten artean.

- Irakasgaiak ematea: espezialitateak desagertzen dira. Irakasle espezialistak sor daitezkeen Haur eta Lehen Hezkuntzako talde berrien tutore bihurtuko dira, ikasgelako ratioa murriztuz gero.
- Sektoreak erabat blokeatuta daude, eta taldeko ikasgelara sartzen diren irakasleak, gehienez ere, bi irakasle dira.
- Gelak: talde bakoitzak bere gela bakarrik erabili ahal izango du.
- Ikasleen artean materialak partekatzea debekatuta egongo da. Ezingo da inola ere erabili erabilera arrunteko material didaktikorik.
- Taldeen eta irakasleen ordutegiak: etapa guztietan berregingo dira.
- Sarrera eta irteeren eta jolas-denboraren kudeaketa: *Planaren 8. atalean azalduta.*
- Eskolaz kanpoko jarduera osagarriak (ateraldiak): etenak.
- Zerbitzu osagarriak (*dokumentu honen 9. puntuan azaldutako baldintzen arabera*):
  - Goiz goizeko sarrera: bertan behera.
  - Eskolako jantokia: aktiboa (Osasun agintarien menpe).
  - Garraioa: aktiboa.
  - Eguerdiko jarduerak: bertan behera.

### **3.4. 4. egoera: aurrez aurreko eskola-jarduera bertan behera uztea eta ikastetxea ixtea**

Azken egoera horretan, agintari eskudunek ikastetxea itxiko dute eta, beraz, aurrez aurreko eskola-jarduera bertan behera utziko da. Ikasle guztiak beren etxeetan geratuko dira, eta ikasleen arreta digital ez-presentzialerako plana jarriko da abian. Bertan, ikaskuntza telematikoki jarraitzeko neurriak sartuko dira, irakasleentzako, ikasleentzako eta familientzako funtzionamendu-jarraibide argi eta espezifikoekin. Plan honen edukia dokumentu honen 10. puntuan deskribatzen da. Kontingentzia-plan honen zati honek klaustroaren onespena izan beharko du aplikatu aurretik, eta, beraz, aldaketak izan ditzake ikasturtean zehar.

Hezkuntza Departamentuak, Lehen Hezkuntzako 4. mailatik aurrerako ikasleek gailu elektronikoak dituztela ziurtatuko du, eta Interneterako konexioa erraztuko die behar duten familiei.

- Zerbitzu osagarriak (*dokumentu honen 9. puntuan azaldutako baldintzen arabera*):
  - Goiz goizeko sarrera: bertan behera.
  - Eskolako jantokia: aktiboa, egoera sozioekonomiko ahulean dauden familientzat soilik. Kasu hauetan diru laguntza txartel bat jasoko dute.
  - Garraioa: bertan behera.
  - Eguerdiko jarduerak: bertan behera.

## **4. Ikastetxeko arduraduna COVID-19ren aurrean**



Ikastetxeko Zuzendaritza Taldeari dagokio COVID-19ren erreferentziazko arduradunaren zeregina bere gain hartuko duen irakaslea izendatzea. Hauek zuzendaritzakoekin batera hartuko dute ardura. 2 arduradun izendatzea erabaki da: Edurne Galarza eta Olatz Urkiri

Honako **eginkizun** hauek izango dituzte:

- Kontingentzia **plana gaztelania hizkuntzara itzultzen laguntzea**. Horretarako, zuzendaritzaren abisua jasotzean, euskarazko bertsioan azpimarratuta dagoen testu zatiaren itzulpena egin gaztelaniazko bertsioan.
- Ikasturte hasierako bileretan protokoloari buruzko informazioa koordinatzea, guraso guztiek jakin dezaten, kasuren bat gertatzen denean informazio-eskaerak murrizteko.
- Higiene- eta garbiketa-neurrien ezarpena eta jarraipena ziurtatzea.
- Eskuen garbiketa:
  - Eskuak garbitzeari buruzko infografiaren presentzia ziurtatzea.
  - Eskuak lehertzeko xaboi likidoaren eta paperaren banagailuak daudela ziurtatzea.
  - Alkohol-oinarriko desinfektatzailearen hornidura ziurtatzea.
- Banantze-oztopo fisikoak (bionboak) behar bezala ezartzen direla egiaztatzea.
- Petril, arreta-leihatiletan eta abarretan distantziaren mugaketa betetzen dela ziurtatzea.
- Irakasleentzako eta irakasle ez diren langileentzako babes-materialaren hornidura ziurtatzea, haien lanaren arabera.
- Pertsonen zirkulazioari buruzko antolaketa- eta seinaleztapen-neurriak betetzen direla egiaztatzea (instalazioen sarbidea, desplazamendua eta ebakuazioa).
- Espazio itxi bat dagoela eta beharrezkoa den hornidura duela egiaztatzea. Espazio hori aldi baterako isolamendu-espazio gisa erabiltzeko baino ez da erabiliko. (03 gela eta 124 gela).
- COVID gelak behar bezala prestatuta daudela ziurtatu <sup>(1)</sup>.
- Birusaren hedapenari eusteko prebentzio-neurriak zabaltzea:
  - Ikasgeletan eta eremu estrategikoetan koronabirusaren prebentzioari buruzko infografiaren presentzia bermatzea.
- DRIVE-ko **COVID-19 ARDURADUNAK** karpeta "COVID gelako datuak" dokumentua eguneratuta eduki, COVID geletan dagoen izen bereko dokumentuko datuekin.
- Erreferentziako pertsona izatea bilaketa-taldearentzat.
- Hezkuntza eta Osasun Departamentuen artean birdefini daitezkeen ardurak.

<sup>(1)</sup> Atea/k irekita egon behar du/te , termometroa, garbigarria/desinfektatzailea, garbiketetan erabiltzeko papera, zabor-poltsaz estalitako paperontziak, hidrogela, musukoak (IIR motakoak eta FFP2 motako 1)

## 5. Segurtasun eta higiene-neurriak

Garrantzitsua ikusten dugu ikasleei transmititzea, hartzen ditugun neurriak gu ez gaixotzeko badirela, baita gu gaixorik egon gaitezkeen neurrian, guk besteak ez kutsatzeko ere. Hau da, gure burua zaintzea besteena zaintzea bezain garrantzitsua dela, komunitate batean bizi gara eta guztiok elkar zaindu behar dugu.

Informazio guztia etxean lantzea ezinbestekoa da hau lortu ahal izateko.

Oro har, ikasleak ikastetxera iristean ez da temperatura hartuko, baina familiei hau egitea eskatuko diegu etxetik atera baino lehen.

### 5.1 - Eskuak garbitzea

Kutsaduraren aurkako prebentzio-neurri handiena *eskuen higiene egokia* da. Komun eta gela guztietan, eragiketa hori behar bezala nola egin behar den erakusten duten infografiak jarriko dira, eta ikasleei ikasturteko lehen egunetan erakutsiko zaizkie.

Ikasleek eskuak urez eta xaboiz garbituko dituzte maiz eskola-egunetan, baita gel hidroalkolikoa erabili ere eskola komunitateko edonork hala adierazten badie, eta, gutxienez, honako kasu hauetan:

- Ikastetxera sartu bezain laster.
- Hamaiketako hartu eta atsedenaldira jaitsi aurretik.
- Jolas-orduetatik igo bezain laster.
- Jantokian bazkaldu baino lehen.
- Jantokian bazkaldu ondoren.
- Etxera joan aurretik.

### 5.2 - Musukoak

*Musukoa* erabiltzea, neurri osagarri bat da, eta ez da ezartzen diren gainerako prebentzio-neurrien ordezkoa; neurri nagusiak beti errespetatu beharko dira, hala nola urruntze soziala, eskuen higiene zorrotza, aurpegia, ahoa, sudurra eta begiak ez ukitzea, eta eztul eta doministiku egitean aho-sudurrak estaltzea.

Musukoa, eskola-eremuan sartzera (jolastokiko atea zeharkatzen denetik) eta bertan egon bitartean erabili beharko da nahitaez. Segurtasun-neurri hori betetzen ez bada, berehala debekatuta egongo da eskola-esparrura sartzea.

Musukoaren inguruko informazioa eta honen erabileraren inguruko jarraibideak hauek dira:

- Ikasleak:
  - Haur Hezkuntzan: ez da nahitaezkoa musukoa erabiltzea gela barruan baina eskola eremuan bai.
  - Lehen Hezkuntzan: nahitaezkoa da musukoa erabiltzea.

- Musukoa etxetik ekarri beharko dute. Ahaztekotan, eskolak musuko kirurgiko bat emango dio ikasleari eta familiari abisua emango zaio berriro gertatu ez dadin eskatzeko. Ikasle berberarekin egoera hau askotan gertatuz gero neurriak hartuko dira.
- Irakasleak:
  - Musukoaren erabilera derrigorrezkoa da egoera guztietan.
  - Musuko kirurjikoak (HH) zein higienikoak (LH) eskolak doan emango ditu baina norberak ikusiko du zein erabili nahi duen.
- Zaintzaileak eta administrazio eta zerbitzuetako langileentzat eskolak musuko kirurgikoa doan emango du.
- Familiak eta hezkuntza-komunitatetik kanpoko beste edozein pertsonak musukoa erabili beharko du eskola-esparrura sartzeko eta bertan egoteko.
- Eskola-garraioan nahitaezkoa izanen da musukoa erabiltzea hiru urtetik gora.
- Ikastetxeak musuko kirurgikoak izanen ditu eskura, norbait sintomak erakusten hasten den kasurako.
- Musukoak eskolako langileen artean banatuko dira beraien erabilerako, zein ikasleei emateko beharrezkoak diren momentuetarako.
- Isolamendu geletan ere, musuko kirurgikoak izanen dira alegiazko COVID kasuetan, ikasleei jartzeko.
- Ikasle guztiek musukoa gordeko dute etxetik ekarritako poltsatsoan beharrezkoa den momentuetan.

### 5.3 - Gel hidroalkoholikoa

Ikastetxeko espazio komun guztiek (ikasgelak, bulegoak, gelak, etab.) gel hidroalkoholikoaren *banatzaileak* izango dituzte eskola komunitateko edonoren eskura. Eskolak ez den edonork atezaintzan dauden banatzaileak erabili beharko ditu eraikinera sartzerakoan.

### 5.4 - Ikastetxeko garbiketa

Hezkuntza Departamentuko jarraibideei jarraituz, neurri hauek ezarri dira:

- Udako garbiketa, ikasturtea hasi aurretik: abuztuaren 17tik irailaren 3ra, garbiketa orokorrak egingo dira eskolako espazio eta bulego guztietan. Garbiketa eta higienizazio sakona egingo dira.
- Eguneroko garbiketa: ohi bezala egingo da, espazio komunak eta eremu bereziki sentikorren higienizazioa indartuz (heldulekuak, eskudelak, fotokopiagailuak, etab.)
- Komunak garbitzea: egunean hiru aldiz garbituko dira.
- Ikasgela espezifikokoak eta erabilera komuneko lanpostuak garbitzea: ikasleek eta irakasleek mahaiak, aulkiak, material didaktikoa (ordenagailuak, irakasle gela, etab.) garbitu beharko dituzte erabili aurretik eta ondotik (goizeko 9etan aurretik garbitzea ez da beharrezkoa izanen).

- Aparteko garbiketak: sakoneko garbiketak egingo dira neguko eta udaberriko oporretan, baita eskola ixten denean ere.

### 5.5 - Ateak, leihoak eta eskailerak

Irakasleak bakarrik ireki edo itxi ahal izango ditu ateak eta leihoak, eta ez ikasleek. Ikasgeletako ateak, irakasleen gelak eta pasabideak irekita egongo dira ahal izanez gero, heldulekuak, irekiera-barrak edo horien beste gainazal batzuk ukitu behar ez izateko.

### 5.6 - Espazioak aireztatzea

COVID-19a prebenitzeko neurri guztiak aplikatu behar ditugu orain, eta arreta berezia jarri behar dugu airearen kalitatean, geletako tenperatura ere zainduta.

Gauzak horrela, ikastetxeko instalazioak aireztatu behar dira sarritan, gutxienez 10-15 minutuan eskolaldiaren hasieran eta amaieran, jolas-orduan eta ikasleak ikasgeletan ez dauden atsedendaldietan.

Nahitaezkoa da irakasleek erabilera komuneko ikasgela edo irakaskuntza-espazioa aireztatzea. Atsedendaldian aireztapena modu gurutzatuan egingo da, horrelakorik egiterik badago, eta, horretarako, ateak eta leihoak zabalduko dira.

Eskola-ordu batetik bestera, ikasgelak aireztatu behar dira leihoak 2 edo 3 minutuan zabalduz, gutxi gorabehera, airea pixka bat berritzeko. Nolanahi ere, ikasleak ikasgelan daudenean, ateak itxita daudela aireztatuko da ikasgela, korrante gurutzatuak saiheste aldera.

Nolanahi ere, eremuen eta urteko hilen arabera, barneko tenperatura arazoizko bat bermatu beharko da COVID-19arekin zerikusirik ez duten arnasbideetako beste gaixotasun batzuk saihesteko.

## 6. Protokoloa alegiazko COVID-19 kasu baten aurrean

Hezkuntza Departamentuak emandako jarraibideetan jasotzen den bezala, baldin eta ikasle bat, irakasle bat edo administrazio eta zerbitzuetako langile bat COVID-19ekin bateragarriak diren sintomak aurkezten hasten bada, Zuzendaritza Taldeak protokolo espezifiko hau abian jarriko du, subjektua isolatzeko eta familiari jakinarazteko.

**Protokoloa** abiaraziko duten sintomak Osasun Ministerioak honako dokumentu honetan jasotakoak dira:

- Batez ere, sukarra, eztula eta/edo aire-falta sentitzea.

- Bigarren mailan, usaimena eta dastamena gutxitzea, hotzikarak, eztarriko mina, giharretako mina, buruko mina, ahultasun orokorra, beherakoa edo okadak, besteak beste.

**Sintomak etxean edo eskola-esparrutik kanpo hasten badira, debekatuta dago eskolara etortzea. Arau hau eskola komunitate osoarentzat da, umeak zein helduak.**

#### **6.1. Ikasleentzako protokoloa:**

1. COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak izanez gero, une horretan ikaslearen ardura duen tutoreak edo irakasleak neurtuko du tenperatura. Kasu horretan, neurketaren arduradunek tenperaturaren bi hartune egingo dituzte gutxienez, lortutako balioan desbideratzeak baztertzeko. Termometroak irakasleen komunetan, fotokopiagailu gelan eta aislamendu gelan egongo dira.
2. Gelan dagoen irakasleak Zuzendaritza Taldeko kide bati deituko dio, eta hark zaintzako irakasle bat izendatuko du, adingabea solairuko isolamendu gelara (03/124 gelak) gidatzera joan dadin. Haurra isolatuta egongo da gela horretan.
3. Bitartean, Zuzendaritza Taldeko kideak familiari jakinaraziko dio, berehala etor daitezten adingabea jasotzera.
4. Gelan, haurren ardurapean dagoen zaintza irakasleak musuko kirurgiko bat emango dio ikasleari, eta berak ere, beste bat jarriko du. Gela behar bezala aireztatuta edukitzeaz arduratuko da.
5. Familia ikaslea jasotzera iristen denean, gogoraraziko zaio derrigorrezkoa dela bere osasun-zentrora joatea edo 948 29 02 90 telefonora deitzea (Foru Komunitateko COVID-19 telefono bidezko arreta-zenbakia). Hau ez betetzearen susmo oinarriduna badago, ikastetxeak osasun-agintaritza eskudunari jakinarazi ahal izango dio, bai eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei ere.
6. Adingabeari COVID-19ren testa egin ondoren, osasun-agintariek zehaztuko dute zer urrats egin behar dituzten adingabearen sektore blokeagarriko gainerako ikasle eta irakasleekin. **Positiboa** izanez gero, ezin izango da ikastetxera joan Osasunak zehazten duen denborarako, ezta isolamenduan egon behar duten anai-arrebak ere.

#### **6.2. Irakasle edo zerbitzu eta administrazioko langileentzako protokoloa:**

1. COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak izanez gero, une horretan langile horrek tenperatura neurtuko du bi aldiz gutxienez, lortutako balioan desbideratzeak baztertzeko. Termometroak irakasleen komunetan, fotokopiagailu gelan eta aislamendu gelan egongo dira.

2. Helduak, berehala abisatuko dio Zuzendaritza Taldeko kide bati, eta etxera joango da kirurgia-motako musuko bat jarrita.
3. Lehenbailehen deitu beharko da Hezkuntza Saileko Lan Arriskuen Atalera (848 42 37 69/848 42 37 28; [seccion.prevencion.educacion@navarra.es](mailto:seccion.prevencion.educacion@navarra.es)) edo 948 29 02 90 zenbakira (Foru Komunitateko COVID-19 telefono bidezko arreta zenbakia). Hala ere, Zuzendaritza Taldeak ofizioz jakinaraziko dio atal horri, idatziz, 12 ordu pasa aurretik.
4. Irakasleari COVID-19 testa egin ondoren, osasun-agintariek erabakiko dute zer urrats egin behar dituzten irakaslearen sektore blokeagarriko gainerako ikasle eta irakasleekin.

## 7. COVID-19ren aurrean kalteberak diren irakasleak eta ikasleak

Ikasturtearen hasieran, egoera ahulean dauden irakasleek eta irakasle ez direnek egoera horren berri eman beharko diote Hezkuntzako Lan Arriskuen Atalari (**848 42 37 69 / 848 42 37 28; [seccion.prevencion.educacion@navarra.es](mailto:seccion.prevencion.educacion@navarra.es)**). Organo horrek banan-banan baloratuko du kasu bakoitza, eta langileari eta zentroari jakinaraziko dizkie hartu beharreko neurriak edo langile horrentzat ematen diren inguruabar bereziak.

Honako hauek hartzen dira *arrisku-pertsonatzat*:

- Gaixotasun kardiobaskularra (hipertentsioa barne).
- Biriketako gaixotasun kronikoa.
- Diabetesa.
- Giltzurrunetako gutxiegitasun kronikoa.
- Immunodepresioa.
- Tratamendu aktiboaren fasean dagoen minbizia.
- Gibeledko gaixotasun kroniko larria.
- Obesitate morbidoa (IMC>40).
- Haurdunaldia.
- 60 urtetik gorakoak.

Ikasleen kasuan, familiei eskatuko zaie ikasturteko lehen astean, irailean, Ikasketa Burutzari jakinaraz diezazkioten beren seme-alaben osasun-arazoak, COVID-19ra sentiaberago egiten badute. Datu horiek, urtero bezala, barne-maneiuko dokumentu batean jasoko dira, ikasle horiek azkar kontrolatu ahal izateko eskola-egunean.


## 8. Antolamendu-neurri orokorrak

### 8.1. Ikasleen sarrerak eta irteerak

Antolaketa hori diseinatzeko, honako inguruabar hauek hartu dira kontuan:

- Eskola-esparrura sartzeko kanpoko ateen kopurua (1).
- Ikastetxe barrura sartzeko ateen kopurua (4).
- Geletara sartzeko eskailera kopurua (3).
- Dagokien sarrerarekiko eta eskailerarekiko gelen kokapena.
- Sarrera-irteerak egiteko bizikidetzatalde iraunkorrak.
- Eskolako eremurako sarrerak hiru ikastetxeen artean banatu ditugula bakoitzak bereak dituelarik.

Baldintza hauek kontuan hartuta, ikasleen sarrera-irteerak honela antolatu ditugu:



Ikasle guztiak, polikiroldegira ematen duen ate nagusitik sartuko dira eskola eremura eta bakoitza dagokion sarrerara joango da, eta bere hilaran jarriko da.

**SARREREI BURUZKO ARAUDIA:**

- Ordu-tegiak:

<i>GOIZEKO SARRERA</i>	
9:00	HH2, LH2, LH3 eta LH5
9:05	HH3, LH1, LH4 eta LH6
9:10	HH1

- Ikasleak, familiak eta irakasleak musukoa jantzita sartuko dira eskola eremura.
- Ikasleak senide baten laguntzarekin patio-ko eremuraino sartu ahal izango badira ere, ahal den neurrian hau sahiestea eskatzen dugu jende pilaketak murriztu arren. HH1eko en kasuan, senide bakar batez lagunduta eskola barrura sartu ahal izango dira musukoa jantzita, eta bertan ahalik eta denbora gutxien egotea garrantzizkoa da.
- Eskola-eremura sartzeko ateak 08:50tan irekiko dira. Hala ere, sarrera eskalonatuta izango denez, gurasoei eskatuko zaie ahal den heinean dagokien orduan etortzea.
- Ikasle bakoitza, dagokion orduan, zehaztutako atera joango da eta bertan itxoingo du bere ilaran, segurtasun-distantzia uneoro errespetatuz.
- Sarreretako irakasle arduradunak, lehenengo saioa eta jolasaldiaren ondorengo saioa ematea dagokien irakasleak izango dira, salbuespenak salbuespen. Adibidez: LH1A taldeak lehenengo saioan ingelesa badu, ingelesako irakaslea joango da haien bila.
- Harreraz arduratuko den irakaslearen eginbeharrak:
  - Musika hasten denean ateak irekiko ditu.
  - Ikasle bakoitzari hidrogela banatuko dio.
  - Gelaraino lagunduko ditu.
  - Etxetik ekarritako gauzak utzi ondoren eta mahaian eseri aurretik gel hidroalkolikoa emango dute berrio ere.
- GARRANTZITSUA: familiei eskatzen zaie ikasleak ez daitezela eskolara 08:50ak baino lehen iritsi, izan ere, ordurarte ez da eskola-eremuko sarbidea irekiko eta jende pilaketa sahiestu nahi da. Ordu-tegia eta puntualtasuna errespetatzea ezinbestekoa da antolakuntza hau ongi joan dadin.

## *IRTEERETAKO ARAUDIA:*

- Ordu-tegia:

<i>EGUERDIKO IRTEERA</i>	
13:50	HH1



14:00	HH2, LH2, LH3 eta LH5
14:05	HH3, LH1, LH4 eta LH6

- Ikas-maila bakoitza, dagokion orduan, zehaztutako atetik aterako da.
- Talde bakoitzaren azkeneko saioa ematea dagokion irakaslea izango da irteera horren arduraduna, salbuespenak salbuespen.
- Irteeraz arduratuko den irakaslearen eginbeharrak:
  - Musika hasten denerako ikasleek eskuak garbituta izatea.
  - Musika hasten denean gelatik irten eta dagokien ateraino ikasleak lagundu.
- Eskolako patio-eremutik ateratzeko atea: goizean sartzeko erabiltzen dena.
- GARRANTZITSUA: Eskola-esparrura sartzeko eta bertatik ateratzeko zehaztutako ateak 13:45etan irekiko dira. Ordu hori baino lehen, sarrera-ateetan pilaketarik egon ez dadin, ikastetxera ez joatea eskatzen da.

## 8.2. Ikasleen joan-etorriak eraikinaren barrualdetik

Musukoa jantzita egingo dira beti, eskola-komunitateko gainerako kideekin ez elkarrengaitzeko moduan. Era berean, pasabideetan eta eskaileretan zeharreko ibilbidean zehar behar bezala adierazitako eta/edo balizatutako zirkulazioaren lehentasunezko noranzkoari jarraituko zaio.

Kolore desberdinak erabili dira maila bakoitzak bere ikastetxe barruko ibilbidea zein den jakiteko eta ikastetxeko mugimenduak mugatzeko.

- HHkoen atetik sartzean jarraitu beharreko kolorea: gorria.
- 1. eta 2.mailakoen atetik sartzean jarraitu beharreko kolorea: beltza.
- 3. eta 4.mailakoen atetik sartzean jarraitu beharreko kolorea: horia.
- 5. eta 6.mailakoen atetik sartzean jarraitu beharreko kolorea: urdina.

## 8.3. Ikasgelen erabilera

*Ikasgela espezifikoa* ez dira erabiliko Erljioa eta Informatika gela izan ezik. Gainerako gela espezifikoa beste funtzio batzuk izatera pasako dira, hain zuzen ere, autobuseko ikasleen harrera, isolamendu gela, mintegiak...

Erljio gelan, bizikidetzat-talde egonkor bat baino gehiagoko ikasleak elkarrekin bizi behar direnean, babes-holtzak jarri beharko dira lanpostuen artean.

Kurtsoan zehar erabakitzen bada gela espezifikoren bati erabileraren bat ematea, beti egingo da higie eta segurtasun neurriak mantenduz, hau da, erabilera bakoitzaren ondotik desinfektatuz.

## 8.4. Gorputz heziketa

Lehenesten da aire librean egitea gorputz heziketa. aterpean, patioan, eremuko zonaldeak. Polikiroldegia ere erabili ahal izango da aireztapena eta aforoa kontutan izanda.

- Ikasleria ariketa fisikoa egiten ari diren bitartean eta segurtasun distantzia bermatzean denean musukorik gabe egingo da.
- Behar beharrezkoa bada materiala erabiltzea desinfektatu egingo da erregulartasunez.
- Saiatuko da gorputz heziketako saioak elkarrekin jartzen.
- Neurri hauek guztiak aldagarriak izango dira momentu epidemiologikoa kontutan izanda. Horretarako baloratu beharko da zein den arriskua edo/eta onura neurri hauek zorrozki edo modu malguago batean aplikatzeko.

### **8.5. Zaintzak**

Gelako *zaintzak* egiteko ohiko tratamendua gauzatuko da eta kontuan hartuko da sektore bereko irakasle batek ordezkapena egitea, ahal den neurrian. Ikasketa-burutzak zaintzako irakaslea izendatuko du, ahal dela, hezkuntza-maila edo etapako irakasleen artetik, hurrenez hurren. Irakasleak segurtasun-neurri hauek hartuko ditu:

- Beti joango da maskara jantzita.
- Eskuak higienizatuko dira ikasgelara iritsi bezain laster.
- Berriro higienizatuko dira eskuak eta erabilitako materiala (mahaia, aulkia,...) gelatik irten aurretik, guardia amaitzean.

Kasu berezi bakarra izango da, isolamenduan dagoen ikasle bat gainbegiratzeko zaintza bat esleitzen denean, COVID-19 sintomak dituelako. Ikasketa Burutzak ere esleituko ditu, eta plan honen 6.1 puntuan azaldutako protokoloari jarraitu beharko zaio.

### **8.6. Jolasaldiaren kudeaketa eta patioaren erabilera**

Baldintza meteorologiko onak izanez gero, hezkuntza-komunitateari proposatzen zaio lehenetsuna ematea kanpoko eremuei hezkuntza-jarduerak egiteko, eta ez soilik aisialdiko jarduerak egiteko, eta jarduera horiek ohiko iraunkortasun-eremutzat har ditzakegu.


Hala nola ere, Hezkuntza Departamentuaren jarraibideek jasotzen duten bezala, gosaria beti ikasgelan egingo da.

Horretarako, hemen aintzat hartu beharrekoak:

- Ez da harremanik egongo bizikidetzat talde egonkorren artean.
- Ikasleak ezin izango dira egokitu zaien eremutik atera. Irakasleak arduratuko dira hori betetzeaz.

- Ikasle guztiak etengabe musukoa jarrita izanen dute.
- Ezin izango da parte-hartzaileen artean trukea eta/edo kontaktu fisikoa eragiten duen kirol-jolaseko materialik erabili.
- Haur hezkuntza eta Lehen Hezkuntza ordutegi desberdinetan aterako dira, taldeka eta modu ordenatu batean.
- **Euria egitekotan** megafoniatik mezu bat jarriko da eta irailean geletan geldituko dira. Urrian txandak antolatuko dira.
- Patioen sektORIZAZIOA, taula honen arabera:

*Lehen hezkuntzako jolasaldian:*



Haur hezkuntzako jolasaldian:



### 8.7. Komunen erabilera



Sentsibilitate bereziko beste puntu bat ikasleek *komunak* erabiltzea izango da. Ikastetxean ditugun komunak kontuan hartuta maila bakoitzari komun bat egokitu zaio.

Era berean, komunak erabiltzeko higiene pertsonaleko protokoloa beteko da:

- Eskuak garbitu sartu bezain laster.
- Komunaren erabilera. **Lehen Hezkuntzako ikasgela bakoitzean lepoko bat izango da, ikasleek komunera joan ahal izateko jantzi beharko dute. Horrela pasabideetako joan-etorriak kontrolatu eta komunetako aforoa mugatzen da.**
- Eskuak berriro garbitzea.
- Lehertzeko, erabili eta botatzeko papera erabili beharko da, eta zakarrontzian utzi.

Azkenik, ikastetxeko guztiak hiru aldiz garbituko ditu garbiketa enpresak eskola-egunean.

### **8.8. Irakasleei eta AZLei buruzko neurriak**

Aurreko puntuetan aipatutako irakasleei eragiten dieten neurriez gain, honako hauek jarriko dira abian:

- Irakasleen komuna: bi aldiz garbituko da, goizean zehar.
- Irakasleen gelan aireztapena etengabea izango da. Gela horretan bakoitzak erabiltzen duen lekua higienizatu egin beharko da gela uztean.
- Ordenagailuak erabiltzeko, beharrezkoa izango da postuak higienizatzea, erabili aurretik eta ondoren.
- Klaustro osoak kafe-makina eta office-a erabili ahal izango ditu, betiere eskuak higienizatuz elementuak ukitu aurretik.
- Zizaila, plastifikatzeko makina edo fotokopiagailuak erabiltzeko, nahitaezkoa izango da aurrez eskuak higienizatzea gel hidroalkoholikoarekin, irakasleen eskura egongo baita ekipo horiekin batera. Fotokopiagailuko gelan, gehienez 2 pertsona izango da, eta atezainek kontrolatuko dute.
- Bulegoak eta tutoretzak maiz aireztatuko dira, baita irakasleek erabiltzeko gelak ere.
- Administrazio eta zerbitzuetako langileak publikotik bereiziko dira, oro har, manparen bidez.
- Administrazioan, pertsona bakarra sartu ahal izango da (irakaslea edo irakasle ez dena), eta aurrekoa atera arte itxaron beharko da. Gainera, administrazioko langileek higienizatu eta/edo eskuak maiz garbitu beharko dituzte, eta artatzen duten publikoari gogoraziko diote gauza bera egin behar dutela ikastetxean eta bulegoan sartu bezain laster. Horretarako, beti eskura eta beteta edukiko dituzte geletako gel hidroalkoholikoaren dosifikatzaileak.

### **8.9. Familiei eta ikastetxez kanpoko pertsoneri buruzko neurriak**

Hezkuntza Departamentuaren jarraibideen arabera, ikastetxetik kanpoko pertsonen presentzia ahalik eta gehien mugatuko da. Beraz, bide telematikoak (telefonoa eta posta elektronikoa) lehenetsiko dira Administrazioarekin izapideak egiteko.

Ikastetxe barrura sartzeko, hitzordua eskatu beharko da beti, eta agiri honetan azaldutako higiene-neurriak bete beharko dira. Adostutako ordutik kanpo ez da inor atendituko.

Eskolara ez ohiko orduetan etorri behar duzuenean (adibibidez seme-alaba medikuarenera eramateko) errotondako atera hurbildu beharko duzue eta kanpoan itxaron beharko duzue.

2. eta 3. egoeretan Irailak 18a baino lehen ikasturte hasierako bilera presentzialak egingo dira, familiako kide bat soilik joango delarik. Familiekin harremana telefonoz edo telematikoki egitea hobetsiko da.

## **9. Zerbitzu osagarrien antolaketarako neurriak**

### **9.1. Goiz goizeko sarrera**

- APYMA/ GURASO ELKARTEAK kudeatzen du, eta egokitzen jotzen duenean eteteko ahalmena du.
- Zerbitzua momentuz 1. eta 2. egoeretan egongo da aktiboa.
- Zerbitzu honen erabiltzaileak jantokian egongo dira bizikidetzat talde egongorretan banaturik.
- Zerbitzuaren garapenari buruzko informazioa, nolahi ere, plan honetan deskribatutako segurtasun-jarraibideen eta ratioen arabera egin beharko dena, posta elektronikoaren bidez jakinaraziko zaie familiei.

### **9.2. Eskola-jantokia**

- Zerbitzu hau eskolako jantokian egingo da, eta ondoan dagoen ikus-entzunezko gela ere erabiliko da HH 1. mailako ikasleen jantokia izan dadin ikasle horien ordutegi eta beharrak bereziak baitira. Urritik aurrera behar izan ezker, baloratuko da beste espazio batzuk erabiltzea.
- Langile guztiek maskara erabiliko dute aldioro. Zainduko dute ikasleen artean edota mahaien artean ez direla mahai-tresnak konpartitzen.
- Ikasle kopuruaren arabera txanda bat edo bi txanda egongo dira. Irailan txanda berdinean bazkalduko dute ikasle guztiek. Urriaren 1etik aurrera, ikasle kopuruaren arabera, bi txanda antola daitezke, betiere taldeen arteko gutxieneko distantzia mantentzeko eta lehenengo txandan bazkaltzeko lehentasuna txikiek dutela.
- Jantokira joan-etorriak mailakatuak eta alde zehatz batean egingo dira, betiere eskolako irteera-ordutegi eskalonatuak errespetatu, salbuespenak salbuespen (antolamenduak behartzen badu, talderen baten ordutegia aurreratu daiteke).

- Jantokiko 3 atea erabiliko dira, eta taldeak sartu eta ateratzeko orden zehatz bat ezarriko da, ikasleak zeharkatu behar dituzten igarobideak libre egoteko.
- Ikasleek ez dituzte jantokian berokiak eta motxilak sartuko; jantokiaren kanpoaldean jarri ditugun eskegitokietan utziko dituzte, ateratzerakoan berriro hartzeko.
- Ikasle guztiak maskara erabiliko dute eskolan zehar ibiltzeko, eta jantokian dagokien lekuan eserita daudela maskara kendu eta gordeko dute, bazkaltzen duten bitartean, eta bukatutakoan berriro jarriko dute lekutik altxatu baino lehen.
- Eskuak garbituko dituzte bazkaldu baino lehen, eta bazkaldu ostean.
- Jantokian daudela ikasleak ezin izango dira komunera joan, salbuespenak salbuespen. Betiere maskara jantzita altxatuko da eserlekitik eta biderik motzena egingo du.
- Jantokia konfiguratu da eta konfiguratu da (ikasle kopurua aldatzen bada) taldeen arteko gutxieneko distantzia mantenduz. Horretarako, eta jantokiko langileek aldioro jakin dezaten jantokia nola montatu eta ikasleak non kokatu, mahai bakoitzean diagrama bat egongo da, zeinak adieraziko duena mahai horretako taldea, ikasle kopurua eta horien kokapen zehatza.
- Ikasturte honetan ezin izango dira noizbehinkako ikasleak onartu.
- Ikasturtea hasita alta eman nahi duten ikasleek, gutxieneko aurrerapenarekin eskatu beharko dute (jarraibideetan zehaztuko da), eta eskolak aztertu ondoren ikasle hori kokatzeko aukera eta jantokiko konfigurazioan eragina, familiari jakinaraziko dio plaza dagoen ala ez, eta egotekotan, noiztik. Saiatuko gara ikasle guztiak onartzen, baina aforoa beteta baldin badago, ikasle hori plazarik gabe geldi daiteke.
- Bazkaldu ostean baimena duten ikasleak etxera joango dira, zuzenean. Gainontzekoak patioan geldituko dira, bere taldearekin, zaintzailearen ardurapean. Gurasoak hesiko ate txikitik sartuko dira eta markatutako eremuan geldituko dira ikaslea beraiengana joan arte. Garraiatuak, ordua heltzen denean, eskolako errontondara joango dira garraioaren arduradunekin, eta dagokien autobusa hartuko dute.
- Urritik aurrerako zerbitzua Hezkuntza Departamentuak ezarritako irizpideei eta ratioei jarraikiz antolatuko da. Irailean betiko ratioak erabili ditugu eta segurtasun neurriak ezarri ditugu.
- Irailean ikasleek 13:00etan bazkaltzen dute eta hurren bila 14:00etatik 15:15era etor daiteke. Urriaren 1etik aurrera jantokia 14:00etan hasiko da, eta bi txanda eta honako antolamendua aurreikusten dugu:
  - 1. txanda, 14:00etan, eta ikasleen bila 14:45etik 15:45era etor daitezke.
  - 2. txanda: 14:50ean, eta ikasleen bila 15:30etik 15:45era etor daitezke.
  - Ikasle guztiak ezin badira onartu, Hezkuntza Departamentuak ezarritako irizpideak jarraituko dira, bazkalkideak zeintzuk diren zehazteko aforoa bete arte.
  - Txanden arteko garbiketaz gain, desinfekzio berezia egingo da eta espazioa 10-15' aireztatuko da.
  - HH 1. mailako ikasleek lo kuluxka egingo dute, talde bakoitza bere gelan, ohetxoetan (egunero desinfektatuko dira). Lo kuluxka izan nahi ez duen



familiak ikaslea jaso beharko du jantokitik irtetzen denean (aurrerago zehaztuko da ordua).

- Ikasleen bila etorri bitartean, ikasleak patioan egongo dira, beraien taldearekin jolasean.
- Autobusez doazenak 15:45ean errotondara joango dira garraio arduradunekin dagokien autobusa hartzeko.
- Jantoki ordutegian ikasle bat gaixotzen bada, eskolan ezarritako protokoloa jarraituko da.

### 9.3. Eskolaz kanpoko jarduerak

- Bertan behera gelditzen dira.

### 9.4. Garraioa

*Ikasle garraiatuak*, eskolara iristerakoan, honako leku hauetan jasoko ditugu, irakasle batzuen zaintzapean:

- Haur Hezkuntzako ikasleak: liburutegian, bakoitza bere bizikidetzatalde egonkorrari dagokion eremuan kokatuko da.
- Lehen Hezkuntzako ikasleak: bakoitza bere gelan.

## 10. Antolakuntza neurri akademikoak

### 10.1 - Gaitasun digitala indartzeko plana

Aurrez aurrekoa ez den hezkuntza-arretako egoera berriak aurreikusteko, ikastetxeak indartze eta prestakuntza plan bat du gaitasun digitalari buruz. Jarduera horiek hainbat esparru hartzen dituzte:

- **Irakasleen prestakuntza:** Irakasle bakoitzak bere kabuz, 15 orduko formakuntza egingo du, gaitasun digitala, prebentzio, higiene eta osasunaren sustapena garatzeko.
- **Ikasleen prestakuntza:** Lehengo hilean, ikasleen gaitasun digitala erreforzatuko da, etxetik lan egin ahal izateko, eskolan aurreikusitako moduan, hau da, irakaskuntza-ikaskuntza prozesu birtualaren jarraipena egiteko beharrezkoak diren kontzeptu eta gaitasun digitalak (mezu elektronikoa bidaltzea eta jasotzea, erantsitako fitxategiekin edo gabe; Drive erabiltzea; Classroom erabiltzea; bideokonferentziak kudeatzea ...)

Formakuntza orokorra eman ondoren, astero gutxienez etxerako lan bat emango zaie trebakuntza horretan jarraitzeko eta lehenengo asteetan hobesten da astean behin baino gehiagotan egitea ziurtatu arte bereganatu dituztela prozedura berriak.

L.H. 4. mailatik aurrera ikasleen hezkuntzako kontua aktibatuko dira, eta hortik aurrera, beti hezkuntzako kontu horrekin arituko dira, ikastetxeko lanetan. Zentroan Digital Planaren barruan, zikloka aztertuko da ziklo guztietan aktibatzearean onurak eta arriskuak, beti ere, gurasoen erabilerako. Aztertu eta baloratu eta gero erabakia hartuko da KPBN.

Prestakuntza hau lehen Hezkuntzako 4. mailatik 6. maila bitarteko ikasleekin gauzatuko da. Kurtsoan zehar egoera egokia izanez gero, 3. mailakoekin ere formakuntza honetan hasiko da.

- **Gurasoen edo legezko tutoreen prestakuntza:** Familiei jakinaraziko zaie, zein izango den beraien seme-alabek lan egiteko modua, eskola emate ez presentzian, eta behar izanez gero, guraso edo tutore horiei behar duten prestakuntza emango zaie, beraien seme-alabei lagundu ahal izateko.

## **10.2 - Programazio didaktikoak**

2019/2020 ikasturteko esperientziaren ondoren, programazio didaktikoak behar bezala eguneratzea, osasun-egoerara egokitzeko antolaketa, metodologia eta ebaluazio-alderdiak kontuan hartuta, irakasleen zeregin nagusietako bat izango da, eta irailetik urriko lehen egunetara egingo da, honako alderdi hauek kontuan hartuta:

- Programazio didaktikoak eta ebaluazio-sistemak funtsezko ikaskuntzetara egokitu beharko dira, curriculumaren ikuspegi holistikoagoa kontuan hartuta, ikasleen gaitasunak kompetentzien arabera ikaskuntzaren premisaren arabera garatzea ahalbidetuko duena, gaitasun digitala berariaz indartuz.
- Plan honek aurreikusten dituen lau egoeretara egokitutako ebaluazio- tresnak eta -irizpideak zehaztuko dira.
- Aniztasunari arreta emateko neurriak zehaztuko dira, baita egoera posible guztietan ere.

## **10.3 - Ikasle eta irakasleentzako hornidura teknologikoa**

Gaitasun Digitala indartzeko planak, arestian deskribatutakoaren osagarri, Lehen Hezkuntzako 4. 5. eta 6. mailako ikasle guztiei gailu digitalak (Chromebook) ematea aurreikusten du. Dotazio hori, horrela bada, ikastetxeak gainbegiratu du, Hezkuntzako Eraldaketa Digitaleko Planaren arduradunaren figuraren bidez.

Bitarteko horiekin lan egingo da hasieratik, 4. egoerara igaro behar izanez gero behar bezala erabiltzen direla ziurtatzeko.

Garrantzitsua da aipatzea familiek, educa bidez, beren seme-alabek posta elektronikoko kontu instituzionalen erabilera zaindu dezaketela (eta zaindu behar dutela).

Era berean, Hezkuntza Departamentuarekin batera eta koordinatuta lan egingo da, behar duten ikasleei baliabide teknologikoak emateko, eten digitala saihesteko.

Tutoreek ziurtatuko dute guraso eta legezko tutore guztien helbide elektronikoa dutela beraiekin harremanetan jartzeko. Beste aldetik, tutoreak ezagutu beharko du, familien baliabide teknologikoak zeintzuk diren (wifi, zeintzuk diren dituzten soport digitalak), beraien egoera ezagutzeko eta ahal den neurrian egoera horiei erantzun egokia emateko. Hau dela eta familiei horrelako informazioa eskatuko zaie, dauden beharrak antzemateko.

#### **10.4 - Tutoretza arreta-plana, aurrez aurreko eskola-jarduera bertan behera utziz gero**

Ikasturte hasierako bileretan (irailaren 18a baino lehen), gerta daitezkeen egoera desberdinen ondorioz ezarri beharreko jardueren berri emango zaie familiei.

Oro har, plan honek honako premisa hauei erantzungo die:

- Ikasleen jarraipena eta familiekiko komunikazioa ez dira tutoreen zeregin eskusiboa.
- 4. egoeran, tutorea bere irakasle-taldearen koordinatzailea izango da, bai familiarekin, bai ikasleekin, bai ikasketa-burutzarekin.
- Hala ere, irakasle-talde osoak lagundu beharko du, Ikasketa Burutzak adierazitako moduan, aipatutako jarraipena eta komunikazioa egiten.

#### **10.5 - Aurrez aurreko eskola-jarduera bertan behera utziz gero arreta akademikoa emateko plana**

Bigarren plan horrek helburu hauek beteko ditu:

1. Irakaskuntza presentzialetik ez-presentzialera ahalik eta denbora laburrenean aldatzea, eta horrek ikasleengan eta haien familiengan eta, jakina, irakasleengan duen eragina minimizatzea, maila guztietan.
2. Ikasleen autonomia sustatzea ahal den heinean, maila bakoitzeko umeen gaitasunak kontuan hartuta.
3. Irakasleen eta ikasleen lan koordinatua eta arina bermatzea.
4. Tresna teknologikoak ahalik eta gehien aprobetxatzea, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak emateko.
5. Ikasleen eta irakasleen osasun emozionala zaintzea, eta egoera horretan dauden familien hezkuntza-lana erraztea eta laguntza ematea.

Helburu horiek lortzeko, funtsezkoa izango da organo hauen lan koordinatua:

Zuzendaritza-taldea + Orientazioa ↔ KPB + HLU ↔ Antolaketa-blokeak

Plana egituratzen duten neurri nagusiak honako hauek dira:

- Lanerako araudi komuna ezarriko da, etapa bakoitzaren arabera, eta honako alderdi hauek zehaztuko ditu:

- Ikasleen lan-ordutegia, bideokonferentziak eta on-line jarduerak barne. Hezkuntza etapari eta mailari egokituta egongo da, bai eta ikasleen autonomia mailari ere. Era berean, irakasgai bakoitzak egoera akademiko arrunt batean duen irakastorduekiko proportzionala izango da.
- Familiei eta ikasleei asteko plangintza jakinarazteko modua.
- Ikasleen eta familien feedbacka eta arreta pertsonalizatua jasotzeko bidea.
- Programazio didaktikoak egokitzea.
- On-line lan-plataformak, hezkuntza-mailaren arabera, eskema honen arabera:
  - Ikusi nola jokatu genuen joan den urtean ziklo bakoitzean Erreniegan eta beste toki batzuetan egindakoa partekatu eta azertu.
  - Ziklo bakoitzak behin behineko erabakiak hartuko ditu, on-line lan egin behar izanez gero nola lan egingo duten, alegia (erabiliko dituzten baliabide teknologikoak, plataformak...).
  - KPBn aztertuko dira zikloetan hartutako behin behineko erabakiak eta mailaz maila jarraipen egokia ikusten den ala ez aztertuko da. Aldaketak beharrezkoak ikusiz gero zikloetara helaraziko dira hurrengo ziklo bileran.
  - KPBn hartutako erabakiak jakinaraziko dira eta horrela ezarriko da ziklo bakoitzean nola lan egin on-line.
  - Erabakita dagoenean nola lan egin ziklo bakoitzean, lan egiteko molde horretan trebatzeko jarduerak prestatuko dituzte mailaka, tutoreak alde batetik eta espezialistak beste aldetik, beraien koordinazio bileretan. Hau prest egondakoan, ikasleak informatika gelara joango dira irakasleekin lagunduta prestakuntza espezifikoa jasotzera.
- 20/21 ikasturteko Aniztasunaren Arretarako Plana aldaketak egitea, aurrez aurreko eskola-jarduera bertan behera utzita, ikasle horiekiko neurri zehatzak eta familiei berariazko euskarria emateko.
  - Organoen asteroko bilerak egingo dira, bideokonferentzia formatuan.
  - Ikasketa Burutzak jarraipena egingo du astero, eta klaustro osoaren lanari lagunduko dio.
  - Orientazio Departamentuari dagokionez, nahiz eta uneko balorazio psikopedagogiko guztiak bertan behera geratuko diren, aurrez aurreko eskola-jarduera bertan behera utziz gero, arrazoi nabariengatik, aholkularitza eta laguntza ematen jarraituko du ikasleen aniztasunari arreta emateko, eta irakasleen tutoretza-lanean lagunduko du.

## 11. Plan hau betetzea

Plan hau Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak ezarritako araudia errespetatuz egin da, eta Erreniega eta gure testuinguru sozialaren behar erreal eta zehatzetara egokitu da. Helburua da hezkuntza-komunitate osoaren osasuna eta adingabeen hezkuntza zaintzea sor daitezkeen testuinguru guztietan, COVID-19ren pandemiaren ondorioz.

Horregatik, nahitaezkoa da hezkuntza-komunitatea osatzen duten kide guztiek irakurtzea eta ezagutzea; izan ere, komunitatea ez ezagutzeak ez du salbuesten hura betetzetik. Horretarako, ahalik eta zabalkunderik handiena emango zaio, eta egin daitezkeen aldaketak eta egokitzapenak jakinaraziko zaizkio.

Halaber, bertan ezartzen diren ekintza guztiak ikasleek, irakasleek, irakasle ez diren langileek eta familiak, bete behar dituzte.

## **12. Plan hau eguneratzea**

Ikastetxearen hezkuntza-kontingentziako plana, lehenik eta behin, osasun-agintaritzaren eskudunek, estatukoek zein autonomikoek, eman ditzaketen jarraibideen mende egongo da, bai eta Hezkuntza Sailak helarazten dizkigun eta nahitaez bete behar diren beste jarraibide batzuen mende ere. Beraz, edukia edozein unetan aldatu ahal izango da, eta, horretarako, behar bezalako publizitatea emango da idazkera aldatzen bada.